**JAUN/ANDRE HORI:**

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorriz, Vitoria-Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2022ko APIRILAREN 12an**, 10:00etan, egingo den bilerarako deia egiten zaizu. Honako hau izango da

GAI-ZERRENDA

1 Aurreko bileraren akta irakurri, eta hala badagokio, onartu.

LEHENDAKARITZA

2 Erabaki-proposamena, Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 22ko Erabakiaren hutsak zuzentzekoa. Erabaki horren bidez, lantokia atzerrian duten goi-kargudun eta langileen erosahalmena eta bizi-kalitatea parekatzeko modulua zehazten da.

SEGURTASUN SAILA

3 Erabaki-proposamena, zeinaren bidez Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetza-hitzarmen bat izenpetzeko baimena ematen baita Kriminologiaren Euskal Institutuaren (KREI) bitartez kriminologia, biktimologia eta segurtasun objektibo eta subjektiboaren arloetan lan-metodologia egokia aztertzeko, garatzeko eta aplikatzeko eta prestakuntza garatzeko, eta, halaber, baimena ematen baita hitzarmen horren bitartez bideratutako zuzeneko dirulaguntza esleitzeko.

**EXCMO\A. SR.\A:**

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, convoco a V.E. a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 10:00 horas del día **12 DE ABRIL DE 2022**, con el siguiente

ORDEN DEL DÍA

1 Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

LEHENDAKARITZA

2 Propuesta de Acuerdo de corrección de errores del Acuerdo de Consejo de Gobierno de 22 de febrero de 2022, por el que se determina el módulo de equiparación del poder adquisitivo y calidad de vida para los altos cargos y personal con destino en el exterior.

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

3 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, para el estudio, el desarrollo y la aplicación, por medio del Instituto Vasco de Criminología (IVAC-KREI), de una metodología de trabajo idónea en materia criminológica, victimológica y de seguridad objetiva y subjetiva, y para la formación, y se autoriza la concesión de la subvención directa instrumentada a través del citado Convenio.

| | | |
|---|---|---|
| LAN ETA ENPLEGU SAILA | | DEPARTAMENTO DE TRABAJO Y EMPLEO |
| Erabaki-proposamena, 2021-2024 Enplegu Plan Estrategikoa onartzekoa. | 4 | Propuesta de Acuerdo por el que se aprueba el Plan Estratégico de Empleo 2021-2024. |
| GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA | | DEPARTAMENTO DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO |
| Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen Dekretua aldatzekoa. | 5 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma. |
| Dekretu-proiektua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretua aldatzekoa (behin-behineko langileak). | 6 | Proyecto de Decreto de modificación del Decreto por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de los Departamentos y Organismos Autónomos de la Administración de la Comunidad Autónoma (personal eventual). |
| Erabaki-proposamena, "Finkatzeko eta egonkortzeko hautaketa-prozesuak indartzea" izeneko aldi baterako programa bat sortzekoa. | 7 | Propuesta de Acuerdo para la creación de un programa temporal denominado "Refuerzo de los procesos selectivos de consolidación y estabilización". |
| Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin. | 8 | Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico para conocimiento del Consejo de Gobierno. |
| EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA | | DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE |
| Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa Repsol Fundazioarekin sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Jasangarritasun Energetikoari buruzko otsailaren 21eko 4/2019 Legearen esparruan ekintzak hedatzekoa. | 9 | Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con la Fundación Repsol, para el despliegue de acciones en el ámbito de la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de sostenibilidad energética. |
| Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, Nekazaritza Politika Erkidean (NPE) txertatutako zuzeneko laguntzen 2022ko ekitaldiko deialdia finantzatzeko. | 10 | Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para la financiación de la convocatoria, para el ejercicio 2022, de las ayudas directas incluidas en la Política Agrícola Común (PAC). |

| EUSKARA | | CASTELLANO |
|---|---|---|
| EKONOMIA ETA OGASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA Y HACIENDA |
| Dekretu-proiektua, 3211 - Enplegua programan kredituak gaitzeko dena, 9311 - Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak programan diru-sarrerak izateagatik, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2022ko ekitaldiko aurrekontutik, 1.214.607,00 euroko zenbatekoarekin. | 11 | Proyecto de Decreto, por el que se habilitan créditos en el Programa 3211 - Empleo, por ingresos en el Programa 9311 - Relaciones Financieras con la Unión Europea, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2022, por importe de 1.214.607,00 euros. |
| Erabaki-proposamena, diruzaintzako gerakinen kontura kreditu globala zabaltzekoa, Hezkuntza Sailak 2022. urtean dituen kreditu-beharrei aurre egiteko xedez, Europako Gizarte Funtsaren esparruan EAEko Oinarrizko Lanbide Heziketako ziklo berrien ezarpena finantzatzeko, 17.170.385,00 euroko zenbatekoarekin. | 12 | Propuesta de Acuerdo de ampliación de crédito global con cargo a remanentes de tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Educación en el ejercicio 2022, para financiar, en el marco del Fondo Social Europeo, la implantación de los nuevos ciclos de Formación Profesional Básica de la CAPV, por importe de 17.170.385,00 euros. |
| Erabaki-proposamena, diruzaintzako gerakinen kontura kreditu globala zabaltzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak 2022ko ekitaldian dituen kreditu-beharrei aurre egiteko xedez, Indartu 2019 eta 2020 programen deialdiak finantzatzeko, 4.357.094,57 euroko zenbatekoarekin. | 13 | Propuesta de Acuerdo de ampliación de crédito global con cargo a remanentes de tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente en el ejercicio 2022, para financiar las convocatorias del programa Indartu 2019 y 2020, por importe de 4.357.094,57 euros. |
| HEZKUNTZA SAILA | | DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN |
| Dekretu-proeiktua, zeinaren bidez bosgarren aldiz aldatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko irakasle ez diren lan-kontratudun langileen lanpostuen zerrenda onartzen duen Dekretua. | 14 | Proyecto de Decreto de quinta modificación del Decreto por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo del personal laboral no docente de apoyo al alumnado con necesidades educativas especiales en centros docentes de la Comunidad Autónoma del País Vasco. |
| OSASUN SAILA | | DEPARTAMENTO DE SALUD |
| Erabaki-proposamena, zerbitzu-eginkizunetan plaza bat betetzeko baimena ematekoa, Euskadin osasun publikoko zaintza-funtzioa eta -egitura garatzeko estrategia berri bat diseinatu eta hedatzeko proiektu bat egiteko. | 15 | Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la cobertura de una plaza, en comisión de servicios, para la realización de un proyecto de diseño y despliegue de una nueva estrategia para el desarrollo de la función y estructura de vigilancia en salud publica en Euskadi. |

BERDINTASUN, JUSTIZIA ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE IGUALDAD, JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES

16

Dekretu-proiektua, generoaren arloko aukera-berdintasunerako jarduketa-eremuko zenbait dekretu aldatzen dituena, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organiko eta funtzional berrira egokitzeko.

Proyecto de Decreto por el que se modifican diversos decretos del área de actuación de igualdad de oportunidades en materia de género, para su adaptación a la nueva estructura orgánica y funcional del Departamento de Igualdad, Justicia y Políticas Sociales.

17

Erabaki-proposamena, aintzat hartzekoa "Adinberri Fundazioarekin" sinatu beharreko lankidetza-hitzarmena, Oiartzualdean zahartze aktiboaren erreferentzia-zentro bat (Adinberri) sortzeko, eskualde behartsuetan edo lehentasunezko jarduera-eremuetan ekonomia eta enplegua suspertzeko Berpiztu programaren esparruan.

Propuesta de Acuerdo de toma en conocimiento del convenio de colaboración a suscribir con la "Fundación Adinberri Fundazioa", para la creación de un centro de referencia del envejecimiento activo (Adinberri) en Oarsoaldea, dentro del marco del programa Berpiztu para la reactivación económica y de empleo para comarcas desfavorecidas o zonas de actuación preferente.

IZENDAPENAK ETA KARGU-KENTZEAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES

LEGEBILTZAR-EKIMENAK

INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2022ko apirilaren 7a.

En Vitoria-Gasteiz, 7 de abril de 2022.

**SIN./FDO.: GARAMENDI LANDA, OLATZ.**
**GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU ETA JAURLARITZAREN IDAZKARIA CONSEJERA DE GOBERNANZA PÚBLICA Y AUTOGOBIERNO Y SECRETARIA DEL GOBIERNO**